

# DOS PROPUESTAS POR EL PIRINEO OCCIDENTAL OSCENSE



Texto y fotos
**Esteban Diego Iraeta**

EN este artículo queremos ofrecer dos recorridos no muy frecuentes, pero de alto interés montañero. Al lado de Bisaurín, en Lizara, se levanta la sierra de Bernera, constituida por Olibón, los cinco picos de Bernera y la Punta Alta de Napazal. En los Banyos de Pandicosa, enfrente de tresmiles como Garmo Negro, Algas o Argualas encontramos un reguero de dosmiles que ofrecen multitud de posibilidades, como los Dients de Batans y las cuencas lacustres que los rodean.

Muchas cimas modestas de Pirineos no tienen nada que envidiar a las más conocidas



*Circo de Olibón y Pico Olibón en primer plano; al fondo Mieidia d'Aussau, Palas, Vath Laitós*

## PICO DE OLIBÓN, PICOS DE BERNERA Y PUNTA ALTA DE NAPAZAL: UNA VUELTA A LA SIERRA BERNERA DESDE EL REFUGIO DE LIZARA

Quiero describir en este artículo una jornada de montaña muy completa y espectacular en la que recorrimos la Sierra Bernera coronando un total de siete cimas: Pico de Olibón, Ruabe de Bernera, Bernera II, Bernera III, Bozo de Bernera, Pico de Bernera y Punta Alta de Napazal. Anduvimos trece kilómetros y medio y superamos 1300 metros de desnivel, afrontando algunos pasos de IIº. Mereció la pena. Arriba nos esperaba el Pirineo más pleno: además de la Sierra Bernera, al este contemplamos la Llana del Bozo, la Llana de la Garganta, Punta Esper (Aspe) y Collarada; al noreste Mieidia d'Aussau, Vath Laitós, Frondiellas..., y al oeste Bisaurín, Secús, Agüerri...

Partimos del refugio de Lizara (1520 m) en dirección al collado del Bozo. Con carácter general caminamos en dirección este y seguimos una clarísima senda que atraviesa los llanos de Lizara, sube al refugio de la Cueva (1580 m), pasa por unas cascadas en el barranco de Articuso y alcanza el collado del Bozo (1890 m).

Desde el collado giramos a la izquierda para remontar el barranco de Igüer. A nuestra derecha se alzan las laderas de la Llana del Bozo y a la izquierda las de la Punta Alta de Napazal. El camino, poco a poco, va tomando









**Esteban Diego Iraeta** 55 urteko barakaldarra da, txikitatik mendizale amorratua. Gure inguruko mendiak ondo ezagutzen ditu eta Euskal Herriko gailurrak ez ezik, Pirinioak, Picos de Europa, Kantabriar Mendilerroa eta Espainiako beste mendi asko ere bisitatu ditu. Azken urteotan, bere mendizaletasuna egiten dituen ibilbideen deskribapenarekin osatzen du: mendiko blog bat (Txokomendi.blogspot.com) elikatzen du eta bertan bai ibilbide errazak eta bai goi-mendikoak idatzi, argitaratu eta partekatzen ditu.



■ *Cresta desde la Ruabe de Bernera*



■ *Olibón desde Ruabe de Bernera*

dirección norte, el barranco se estrecha y el arroyo forma una cascada prácticamente casi sin agua cuando pasamos.

Algo más arriba divisamos por fin el Pico de Olibón y la Ruabe de Bernera. Separados por un collado (2420 m) se diferencian fácilmente por el color marrón característico que el prominente Olibón muestra en su flanco derecho, mientras que la Ruabe de Bernera, situada a la izquierda del collado, es de piedra caliza con su color gris típico. En la cabecera del barranco cambiamos de orientación girando a la izquierda (NO) para subir al collado entre ambas cimas. El ascenso al Pico de Olibón (2475 m) requiere mucho cuidado en la trepada y destrepada de su cresta. De vuelta al collado accedemos con suma facilidad (O) a la cima de Ruabe de Bernera (2465 m).

A continuación, siempre en dirección ONO, se puede recorrer la cresta caliza que permite coronar otras tres cimas del macizo. En primer lugar se alcanza la cima II de Bernera (2448 m) y, tras perder unos metros para alcanzar un collado, se llega en breve al pico III de Bernera (2444 m). En este tramo hay varios pasos de II°, no difíciles pero que requieren mucha precaución. Poco más adelante se alcanza igualmente la cima del Bozo de Bernera (2454 m).

## El ascenso al Pico de Olibón requiere mucho cuidado

Regresamos sobre nuestros pasos hasta la pequeña depresión que separa Bernera III de Bozo de Bernera y desde allí nos dirigimos (S) al collado de Bernera (2380 m) y a la cima de Bernera* (2431 m). Nosotros tuvimos el placer de compartir los momentos de la cima de Bernera con una cuadrilla de Sant Mateo de Gálligo, a la que enviamos un saludo desde aquí.

Para culminar el ascenso a todas las cimas del Macizo de Bernera, solo nos queda la Punta Alta de Napazal. Volvemos al collado de Bernera (N) y desde aquí, por la izquierda, bajamos (S) a la hondonada (2320 m) previa a la cima. Salvados unos cuantos metros, se supera sin problema la loma herbosa y se corona la Punta Alta de Napazal (2362 m).

El regreso puede hacerse descendiendo por la cara sur de Punta Alta de Napazal. El trayecto es muy empinado, pero está marcado con hitos. Primero baja hacia el sur, luego hacia el este y de nuevo al sur para llegar al collado del Bozo. En una hora se alcanza el refugio de Lizara, pero nosotros hicimos una breve parada en los Llanos de Lizara para visitar el célebre dolmen del mismo nombre.

*La cima que tiene el nombre *Bernera* propiamente dicho está separada de la cresta caliza que acabábamos de recorrer, siendo el collado de Bernera el punto que las une y, por tanto, el paso más adecuado.

## DIENT DE BATANS: GOI-BIDEA BRAZATO, GRAMATUERO ETA BACHIMANYA URTEGIETAKO AINTZIRA-ARROETAN ZEHAR

Brazato, Gramatuero eta Bachimanya urtegietako aintzira-arroak zeharkatzen dituen goiko bidea jarraituz, hegoekialdeko Dient de Batans izeneko gailurrera heltzeko, 18 kilometroko ibilbidea deskribatzen da honako lerro hauetan, tontorra erdiesteko 1500 metroko desmaila salbatu behar delarik.

Banyos de Pandicosako La Casa de Piedra aterpetik atera eta lehenengo urratsak turismo guneko eraikinen artean eman genituen. Lehenik Caldares erreka (H) zeharkatu eta segituan Brazato errekaren hegia jarraitu genuen metro batzuetan (HE), harik eta bidea beste aldera pasatzen den arte. Orduan hasten da igoera (IE), Banyos de Pandicosa pixkanaka pixkanaka atzean utziz. Lehen momentuan gure igoera GR11 ibilbideari egokitzen zaio, baina berehala uzten du, sigi-saga motz eta azkar batez eraikin batera heltzeko. Hego-ekialdera jo genuen eta pinudi bat zeharkatuta, Brazatoko errekazuloan sartu ginen berehala. Hemen argi utzi behar da gure sigi-saga hori ez dela Brazatoko beheko aintzirara doan GR11rena, eskuineragotik doan beste ibilbide bat baizik. Igotzen ginen bitartean, geure bizkarrean (I) altxatzen ziren Algas, Argualas eta Garmo Negro mendien gaineko egunsenti ederrari atera genizkion argazkiak, baita aurrez aurreko (H) Foratura haitzaren gainekoari ere.

CUANDO nos acercamos a una cordillera, por lo general, lo hacemos atraídos por sus cimas más relevantes. Sin embargo, y sobre todo en las grandes cordilleras como Pirineos, a la sombra de las cumbres más conocidas se elevan otras que no tienen nada que envidiar a las primeras.




### Basoa desagertzen joan ahala, granitozko harritzak hasten dira agertzen

Brazatoko errekazuloa gainditu genuen (HE) errekaren ondoan, bere eskuineko aldetik goraka doan bidea jarraituz. Erreka oinutsik zeharkatu behar izan genuen, urez gainezka zetorren eta. Basoa desagertzen joan ahala, granitozko harritzak hasi ziren agertzen eta lagun izango genituen ibilbidea amaitu arte. Harri pilez ondo seinalatuta egon arren, oso erraza da galtzea. 2300 metroko kota baino pixka bat gorago heldu eta Brazatoko beheko aintzira agertu zen gure ezkerrera (2,10h). Gure gainean (HE) Sarrato /Tablato eta Brazato tontorrak altxatzen ziren tente. Iparralderantz begiratuz, Dients de Batans izeneko gailur-lerroa ikusi genuen lehen aldiz. Leku horretan norabidea aldatu (EIE) eta hala ailegatu ginen Brazato urtegira (2427 m, 2,45h). Ezkerreko hegia segituz heldu ginen presara eta burdinezko zubitik zeharkatu genuen, handik Collarada, Pala de Ip eta Punta Escarra mendi ederren argazkiak egiteko aprobetxaturik. Punta dero Puerto mendi puska lerdena uretan islatzen zen.

GR11rekin bat eginez eta Brazatoko goiko aintziren gainetik pasatuz, Brazatoko goiko leporantz (IE) segitu genuen (3,20h). Atakara heldu gabe desbideratu ginen ipar mendebalderantz Labazako mendi lepora eramango gintuen harritza igotzeko (2632 m) (4,05h). Lepoa zeharkatu eta beste aldetik jaitsi ginen (I) apur batez. Serrato eta Labaza aintziren gainetik zeharka, norabidea mantendu genuen Xuans mendi lepora heldu arte (2763 m) (5,30h). Ezkerrera Xuans haitza altxatzen da, iparraldera Serrato mendia eta eskuinera, azkenik, Dients de Batans mendilerroaren mendebaldeko isurialdea. Aipatutako Dients de Batans horiek hiru dira: ipar-mendebaldekoa (2877 m), erdikoa (2899m) eta hego-ekialdekoa (2910m). Azken hau zen gure helburua, hiruretatik altuena.

Xuans mendi lepotik Dients de Batans mendien ekialdeko isurialdera pasatu ginen eta, hegoaldera biratuz, aipatutako haietatik urrunenera zuzendu ginen. Mendi puska horren ezkerreko mendi lepora heldu ginen eta bertan ekin genion tontorrera eramango gintuen trepadari. Bigarren graduko pasaleku bat dauka (II) eta lehenengo graduko beste bat (I+). Gailurretik ibili berria geneukan urtegietako aintzira-arroaren ikuspegia ikaragarria zen eta, era berean, Marcadau, Gran Faixa, Badet, Algas, Argualas eta Garmo Negro ere oso nabariak ziren.

Bigarren graduko pasalekua ekiditeko, rappel batez jaitsi eta Gramatueroko goiko urtegira zuzendu ginen (2520 m) (8,30h), aurrez-aurre geneuzkan Badet, Pics d'Arratilha eta Vinhamalaren ikuspegi ederrak liluraturik. Urtegiko presara heldu eta norabidea aldatu genuen berriro (M), Gramatueroko beheko urtegira jaisteko (2320m) (9,30h). Ezkerreko hegia ibili ondoren, beste bira bat hegoaldera eta Bachimanyako goiko urtegira ailegatu ginen, Bachimanyako aterpe zaharretik oso gertu. Gailurretik hona marra zuri-beltzak jarraituz jaitsi ginen eta, ordura arte oso lagungarriak izan baziren ere, urtegiko eskuineko hegitik segitzen dute eta guk, aldiz, ezkerreko aldea hobetsi genuen. Alde honetako bidea harri pilez balizaturik dago, baina kontu handiz ibili behar da urtegira ez erortzeko. Pare bat tokitan kablezko eskubandak daude eta destreperen bat egin behar da. Behin presara helduta, Bachimanyako aterpe berrian afaldu eta lo egin genuen (11,30h) (2192 m).

Hurrengo egunean GR11 eta Caldares ibaia jarraituz (H) jaitsi ginen abiapuntu izan genuen Banyos de Pandicosara. ❑



Dents de Batans Labaza haitzetako lepotik



Punta dero Puerto Brazato urtegiaren gainean